

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Donostia, 2016ko abenduaren 15a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, "2016KO KULTURA SARIA" DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa, batzordean, Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzi ordezkariari "2016ko Kultura sariari" buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pasa den ostiralean, azaroak 25, Donostiako Udalak "2016ko Kultura saria" eman zion toreatzaile bati. Hedabideek jaso zuten bezalaxe, sari berezia da, 2016ak bat egiten duelako Donostiako kultur hiriburutzarekin.

Gainera, sari horrek kultur hiriburutzaren logoa edukitzeak zeharo harritu gaitu, deigarria baita pertsona batzuen gozamen hutserako zezenak hiltzea nabarmentzeko modukoa izatea kulturaren inguruko urtean. Gure iritziz, zalantzarik gabe, onartezina da 2016ren legatuan animaliei emandako tratu txarrak ametitzea.

Batzordean aurkeztu genuen interpelazioari erantzunez, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen zezenketak kultura direla defendatzen duela gobernuak, alde batera utzita praktika horretan animaliei tratu txarrak eman eta hil egiten dituztela. Eta horregatik defendatzen dute animaliak torturatzen eta hiltzen jarduten den bati eman izana saria.

Onartezina da animaliak torturatzen eta hiltzen jarduten den bati ematea 2016ko Kultura saria, sari aparta aurten Europako kultur hiriburu izateak dakarren berezitasunagatik. Hiriburutzaren

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

zuzendaritzak adierazi duen bezala, kultur hiriburutzatik zerbait nabarmentzekotan, hori legatuak utziko duen bizikidetzeta da. Beraz, harrigarria da saria honako hauek eragiten dituen jarduera bati ematea: lehenik, tratu txarrak eta animalien hilketa; eta, bigarrenik, herritarren arbuioa, izan ere, milaka herritarrek galdeketa egitea eskatu dute, ez baitute ulertzen nola egin eta susta daitezkeen era horretako jarduerak.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio ez diezaiela saririk eman animaliei emandako tratu txarrekin zerikusirik duten pertsoneri.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.